

Ideia-zaparrada Bergaran: Nola eta zertan hobetu Bergara. Ideia-lehiaketa 2013

Herri CUIDAdanoa

Pertsona guztiek antzekotasun bat daukagu: egunaren momenturen batean, guztioi ondo etorriko litzaiguke laguntza izatea. Imajinatzen duzu egoera nola aldatuko zen antolatzen bagara...

... bizilagunaren txakurra ateratzeko mendira joaten zarenean, 2. pisuko Xabiren landareak ureztatzeko bere herrira joaten denean, 5. pisuko agureari zakarra jaisteko, plazan dagoen okindegiak haurrentzako osasungarriak diren bokatak prestatzeko eta elkarrekin jolasten duten bitartean askaria hartzeko, janari pixka bat gehiago sukaldatu eta bizilagunari tupperra gordetzeko, bost lagun artean atariko jardineran letxugak landatzeko...

Ez dute zure egunerokotasunean sekulako aldaketa suposatzen, eta guztiontzako bizitzeko era berri bat dakar.

Sarrera

Osasuna ikuspuntu integral eta sozialetik landu duen taldea gara. Pertsonen bizimodua kalean behatzen aritu gara eta, Gipuzkoako auzo eta herrietan, pertsona horietatik asko zahartzaroan sartuta daudela konturatu gara. Horrela bada, osasun-egoeraren segimendua egiteko teknologia berriak erabiltzeko dituzten arazoez gain, pertsonak bizi duten bakardadea egoera aipatuena izan zela atentzioa deitu zigun. Laguntza gehien jasotzen duten pertsonak eta guzti sentitzen zuten bere osasunean, gaitasunetan, bizitzan eragiten zuen bakardadea! Beraz, isolamendua/bakardadea lan-ardatz nagusia zen.

Datu hauetatik abiatuta, aspaldiko ohituretan eta usadioetan ideiak topatu genituen -auzolana, auzoteria atsegina- eta osasun-zaintzaren ideia era kolektiboan garatzea proposatu genuen. Horretarako, esparru garrantzitsuena auzoa zen, bere gertutasun fisikoarengatik, betidanik suposatu duenagatik...

Gure kulturen, auzoteria eta bizilagunak hitz batean bateratzen dira: auzoak.

Gure taldeak jadanik landu du elkar laguntzaren ideia eraikin itxietan, baina aldaketaren indarra auzoaren artikulaziotik etorriko dela pentsatzen dugu -auzoz auzo- herriarentzako potentzia-gune gisa.

Landu dezakegu jendarte-erlazio eredu berria Bergaran auzoetatik abiatuta? Landu dezakegu zaintzaren sozializazioaren inguruko ideia feminista auzoa, herria oinarritzat hartuz?

Proiektuaren deskripzioa

Proiektua pertsonen elkar laguntzarako zerbitzu kooperatiboa diseinatzean datza, Bergarako auzo bat osatzen duten pertsona eta eragileekin bizilagunek elkar laguntzarako sarea sortzearen bitartez.

Potentzialki zerbitzuaren erabiltzaileak, potentzialki bultzatzaileak/laguntzaileak eta profesionalak batuko dituen elkarrekin sortzeko prozesua garatzea bilatzen da, egunerokotasuneko arazoei erantzuna emateko erak identifikatzen lagunduko duen errekurtsu-eredua emaitzatzat emango duena.

Proiektu honekin Bergarako pertsonen ongizatea bermatzeko, horien beharrei erantzuna ematea bilatzen dugu, baina baita bizilagunen arteko kohesioa bultzatzea eta herrian herritartasun-eredu alternatiboak sustatzea ere, jendartearen elkar erlazioa eta elkarrekiko laguntza baloreetan oinarrituta.

Gai konkretu baten inguruan normalki elkartuko ez ziren pertsonak elkartzeak berrikuntza soziala ekar dezakeela pentsatzen dugu, lan egokia eginez gero: ideien sustatzea lagunduz, aniztasuna baloratu, konfiantza nahikoa eraginez...

Zer gertatuko zen jubilatuen elkarte auzoko skater-ekin lanean jarriko bagenu elkarren artean beharrei erantzuteko? Eta gainera Bergararako erronka sozialak planteatzen baditugu?

Helburuak

Proiektu honek lehiaketak ezarritako helburuei erantzuten die:

- b. Herritarren (norbanako eta herritar gisa) bizi-kalitatea hobetuko dute ideiak**
- c. Herritarren parte-hartzea eta elkarrekiko solidaritatea, sustatuko dituztenak**
- d. Elkartasun premiei erantzuteko sustatuko dituztenak**

Helburu hauek lan pertsonala eta auzolana uztartuz lortzen dira, Udalaren inplikazioarekin.

Helburu orokorrak:

- > Pertsonen dedikazio produktiboa -lana- eta erreproduktiboa -bizitzaren sostengurako lanak- bateratu.
- > Zaintza sozializatu
- > Parte hartzen duten komunitateetako adineko pertsonen eta dependentzia duten pertsonen autonomia indartu, auzoan laguntza-errekurtso baten diseinuaren bitartez.
- > Parte hartzen duten komunitateetan kohesio soziala sustatu
- > Laguntza-erlaziotan oinarritutako herritartasun-eredu berrien eraikuntzan lagundu.

Helburu zehatzak:

- Parte hartzen duten komunitateak laguntza-errekurtsoa diseinatzerako bideratutako prozesu kokreatiboan inplikatu.
- Potentzialki zerbitzuaren erabiltzaile, potentzialki bultzatzaile/laguntzaile eta profesionalek egindako ekarpenetatik abiatuta, errekurtsu-eredua proposatu.
- Etorkizunean esperientzia honek jarraipena izateko, komunitatean konfiantza giroa eta kohesioa eragin.
- Beste auzoterietara, auzoetara zein herriko prozesuetara eraman ahal izango den errekurtsu-eredua sortu.

Erabilera

Proiektu honek Bergarako edozein komunitate zein kolektibok metodologia aplikatu ahal izateko eredua proposatzen du, baita problematika ezberdinei erantzuna emateko ere.

Onurak

Ekimen honen onurak, guztiontzako ongizatea bilatzeko behar den herritarrek eraikitako erlazionatzeko era kooperatibo batetik etorriko dira.

Gidatutako adibide konkretu baten laguntzaz, ondoren era naturalean erabili ahal izango diren estrategiak txertatuko dira, lidergoa eta antolakuntza beste egoera eta espazio sozialetara eramateko.

Proiektu teknikoa

1. PARTE HARTUKO DUTEN KOMUNITATEEN IDENTIFIKAZIOA.

Lehenengo urratsa izango da horrelako laguntza-zerbitzua garatzeko interesa duten komunitateak identifikatzea eta baita prozesuan parte hartzeko prest daudenak ere.

Horretarako, herritarren eta eragileen artean galdeketa egingo da. Bergarako udal-langileria ere kontsultatuko dugu, prozesua aurrera eramateko behar handien duen lekua zein izan daitekeen jakin eta arrakasta-aukera gehiago non topa dezakegun zehazteko.

Helburua parte hartzeko prest dagoen auzoa topatzea izango da: bizilagun-eraikinak bilatuko

ditugu, baita lekuko komertzio eta zerbitzuak ere.

2. LEHEN ZABALKUNDEA

Behin auzoa identifikatuta, proiektuaren lehen zabalkundea kartel bidez egingo da, informazio bilera bat edo batzuetara gonbidatuz. Bilera honetan/hauetan ere, laguntza-sarean parte hartu nahi duten pertsona interesatuak eta errekurtsoren diseinuan parte hartzeko prest dauden auzoko eragile estrategikoak identifikatuko ditugu.

3. INGURUAREN EZAGUTZA

Hirugarren urratsa etorkizuneko auzoko laguntza-zerbitzua diseinatzea izango da. Hori ondorengo prozesuaren bidez egingo da:

- a. Potentzialki erabiltzaileak izango diren pertsonen elkarrizketak. Hauetan beraien ohitura, ordutegi eta beharren inguruan ikertuko dira, edota beste zerbitzu, errekurtsu eta pertsonekin dituzten erlazioak. Ideia eguneroko beharrak eskusa gisa erabiltzea da, baina gerora esperientzia beste esparru batzuetara zabaltzeko aukera egotea.
- b. Potentzialki laguntzaile izango diren komertzio, kolektibo, eragile eta zerbitzuei elkarrizketak. Beste potentzialki laguntzaileak izango diren eragileak ere elkarrizketatuko dira, horien beharrak, ordutegiak eta disponibilitatea, sarearekin konpromiso-maila eta -gaitasuna, eta abarrak ezagutzeko. Honela, laguntzaile-perfilen arabera, laguntza-bide ezberdinak pentsatuko dira.

4. ELKARREKIN SORTZEKO TALDEA

3. urratsean eskuratutako informazioarekin, emaitza batzuk zehaztuko dira. Emaitza hauek elkarrekin sortzeko tailerraren oinarria izango dira.

Tailer honetan, erabiltzaile eta laguntzaileak topatuko dira, baita antzeko esperientzia izan duten profesionalak ere. Emaitzen aurkezpenetik abiatuta, partaideen inplikazio eta ekimenetik sortutako zerbitzuaren diseinurako proposamenak eraikitzen hasiko dira.

5. ANALISIA

Prozesua garatutakoan, izan daitezkeen emaitzak nahiz irtenbideak definituko dira. Horretarako, beharrezkoa da proiektua osatzen duten jakintza alor anitzeko taldeak analisisa egitea. Analisi hori potentzialki erabiltzaileak direnen beharrak eta laguntza emateko prest dauden pertsonen disponibilitate zein erritmoa uztartzeko era desberdinak detektatzera bideratuko da, baita errealitate ezberdinen arabera, zerbitzuak izango duen helburua definitzera ere.

Irtenbide hauek martxan jartzeko elementu klabeak ere identifikatuko dira.

6. EMAITZAK

Herri CUIDAdanorako eraldaketa-gida

Prozesuaren emaitzak auzoko zaintza-sarea sortzeko urratsen eta aholkuen bilketa izango da. Egokiena proiektuaren datu-bilketa hau ikus-entzunezkoa izatea litzateke, beste auzoentzako eta osotasunean herriarentzako heziketa eta sentsibilizaziorako tresna egokia bilakatzeko.

Gidan, prozesuan lan egin den erabiltzaile- eta boluntario-perfil guztiei erantzuna emateko protokoloak garatuko dira eta laguntza-sareak zein beharrezko baliabideak identifikatuko dira.

Horrela bada, zerbitzua beste komunitatetara egokitu ahal izateko, klabe batzuk zehaztuko

KRONOGRAMA

Hilabeteak	1	2	3	4	5	6
Faseak						
Komunitatea identifikatu						
Zabalkundea						
Inguruaren ezagutza						
Elkarrekin sortzeko taldea						
Analisia						
Eraitzak						
Ebaluazioa						